

## **IRUNGO UDALA BARNE MERKATARITZAREN LEHIAKETA NAZIONALEAN SARITUA**

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak antolatzen duen lehiaketa honetan bi akzesit eman zituzten eta horietako bat jaso du

Irungo alkateak, Jose Antonio Santano, eta Hiritarrekiko Harremanetako ordezkari eta merkataritza arduradunak, Maite Cruzado, gaur goizean aurkeztu dute Irungo Udalak jaso duen akzesita, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak ematen duen Barne Merkataritzaren Lehiaketa Nazionalean lortua.

Alkateak zera esan du: *“sariak denok ezagutzen dugun zerbait aitortzen du, Irunek daukan merkataritza alorreko erakargarritasun handia, ez hiri barnean soilik, baita hurbileko inguru osoan ere. Merkataritzaren eskaintza, zabala, askotarikoa eta kalitatezkoa da eta sari honek horixe aitortzen du”.*

Sari hauen edizio berri bat izan da, hiru modalitate dituena. Horietako lehena, eta Irungo Udalak akzesit bat lortu duena (Castelló-ko Villarrealeko Udalarekin batera) eta Tenerifeko Lagunako Udalak irabazi duena, udalerrietan Udalen bitartez garatu diren hiri merkataritza berritzeko jarduerak saritzea du helburu.

Maite Cruzadok adierazi du *“duela urte batzuetatik hona Udalaren eta merkatarien arteko harremana oso positiboa eta eraikitzailea izan dela eta bi ikuspegiak elkartu ondoren etorri dela PERCO bezalako jardueren arrakasta, sari hau lortzeko oinarritzkoa izan baita”.*

Mugan elkarteko lehendakaria, Jose Ignacio Bermudez ere prentsaurrekoan egon da eta *“oso gustura agertu da sari honekin, gure hirian merkatarien eta udalaren artean azkeneko 12 urteetan merkataritza alorrean egiten ari diren lan handia eskertzerantz baitator”.*

Hiri honetatik dossier oso bat bidali zen, non jasotzen ziren hirian egindako jarduerak, Irunek duen izaera komertziala bultzatzera bideratutakoak. Beraz, 2004tik Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia (PERCO) onartu ondoren emandako urratsak azaltzen ziren. Gainera, egin diren edo planifikatuta dauden hirigintza komertzialaren jardura desberdinak zehazten ziren, esaterako, trenbide espazioaren antolaketa, erosketa ibilbideak finkatzea, berrurbanizazio desberdinak edo aparkaleku, mugikortasun eta garraio publikoaren planak. Azkeneko urteetan hirian merkataritzako seinaleen alorrean egin diren hobekuntza guztiak ere aurkeztu ziren, bai Irunera sartzeko daudenak eta bai ibilbide komertzialak edo hiriko aparkalekuak seinaltatzeko direnak.

Duela hilabete batzuk sari hauen arduradunetako bat irunera etorri zen hirian eginiko hobekuntza urbanistiko eta komertzialen errealitatea “in situ” ezagutzeko. Gehien gustatuko zitzaien alderdietako batzuk bideen garbitasuna, hiriko altzarien kalitatea eta lorategi zainduak izan ziren, hiriari orokorrean itxura atsegina eta eroso ematen ziotena ibilbide komertzialak egiteko garaian.

Gogoratu beharra dago Irun beti nabarmendu dela, eta batez ere azkeneko urteetan, daukan potentzial komertzial indartsuagatik eta inguruko herriak erakartzen jakin izanagatik. Hiriak, 1000 biztanleko komertzioen dentsitaterik handiena du Gipuzkoa osoan.

Beste sarietako bat merkataritza txikiari zuzendutakoa da eta, azkenik, zentro komertzial irekiei ematen zaiena, elkarrekin komertzial batzuk saritu dituelarik.

Irun, 2009ko urtarrilaren 16an